BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

4598

AGINDUA, 2012ko urriaren 3koa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuarena, 2012-2013 ikasturteari dagokion ikastetxeei buruzko informazioa eredu bateratuaren bidez biltzeko dena.

Hezkuntza-plangintza eta kudeaketa arloetako beharrei erantzun ahal izateko eta estatistika ondorioetarako, unibertsitateaz kanpoko irakaskuntzak ematen dituzten Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxe guztietan 2012-2013 ikasturteari buruzko bateratutako informazioa bilduko da. Horretarako, Administrazio eta Zerbitzuen Sailburuordetzaren eta Hezkuntza Sailburuordetzaren proposamenez, hauxe

XEDATZEN DUT:

Lehenengoa.– Euskal Autonomia Erkidegoan beren egoitzak dituzten unibertsitatez besteko ikastetxe guztiek, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren aplikazioak erabiliz, Eskola Jarduera eta Ordutegiak izenpean antolatu diren galdera zerrendei erantzun beharko diete eta bete zehaztasunez eta egiatasunez.

Bigarrena.– Ikasturte bakoitzean zehar, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak zer galdeketa bete behar diren komunikatuko dio ikastetxe bakoitzari, eta epeak eta prozedura egokiak adieraziko du.

Hirugarrena.– Ikastetxeko zuzendariak gainbegiratu beharko du ereduak nola bete diren, izan ere, honek abalatzen baitu ematen den informazioaren egiazkotasuna. Galdesortak bete ondoren, ezarritako prozedurak eta epeak errespetatuz, aurkeztu behar dira, eta ondoren, behar denean, berrikusteari ekingo zaio.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.– Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordeari, Hezkuntzako sailburuordeari eta Hezkuntzako Lurralde ordezkariei esku ematen zaie, agindu honetan ezartzen dena garatzeko eta aplikatzeko beharrezkoak diren neurriak har ditzan.

Bigarrena.– Agindu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu ondoren izango du eragina.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko urriaren 3a.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburua,
MARÍA ISABEL CELAÁ DIÉGUEZ.